# ALKATETZAREN EBAZPENA

# RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

(Espedientea/Expediente: 2020SUHA0021)

**Gaia:** Merkataritzako eta ostalaritzako bonuen 2020ko bigarren kanpainaren oinarriak

**Egitateak**

Alkatetzaren urriaren 7ko 949/2020 zenbakiko Ebazpenaren bitartez, merkataritzako eta ostalaritzako bonuen bigarren kanpainaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartu ziren (GAO, 198, 2020ko urriaren 16koa).

Hiri Bultzadako ordezkariaren urriaren 29ko 50/2020 zenbakiko Ebazpenaren bitartez, kanpainari atxikitako merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduen zerrenda onartu zen, eta establezimendu bakoitzak bere bezeroei gehienez ere zenbat bonu eskain ziezazkiokeen finkatu zen.

Behin kanpainari atxikitako establezimenduen zerrenda onartuta eta bonuen gehieneko kopurua finkatuta, akats informatiko bat hauteman da, zeinaren ondorioz eskabidea behar bezala eta zegokion epean aurkeztu zuen merkataritzako establezimendu bat ez zen sartu zerrendan.

Alarma egoeraren adierazpenaren eremuan egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko osasun publikoko prebentzio neurriak hartzeko lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretua aldatzeko lehendakariaren azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuak "ostalaritzako eta jatetxeetako

**En relación a** Bases de la segunda campaña bonos comercio y hostelería 2020

**Resultando los siguientes hechos:**

Que por Resolución del Alcaldía nº 949/2020, de 07 de octubre fueron aprobadas las bases reguladoras y la convocatoria de la segunda campaña de bonos comercio y hostelería (BOG nº 198, de 16 de octubre de 2020).

Que por Resolución de la Delegada de Impulso Ciudad nº 50/2020, de 29 de octubre fue aprobada la lista de establecimientos comerciales y hosteleros adheridos a la campaña y se fijó el número máximo de bonos que cada establecimiento puede ofrecer a sus clientes.

Que una vez aprobada la lista de establecimientos adheridos y fijado el número máximo de bonos se ha detectado que por un error informático no se incluyó a un establecimiento comercial que realizó la solicitud correctamente en el plazo indicado para ello.

Que por Decreto 38/2020, de 6 de noviembre, del Lehendakari, de modificación del Decreto 36/2020, de 26 de octubre, por el que se determinan medidas específicas de prevención, en el ámbito de la declaración del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: YV8W-UQ8E-WUOJ-4BWG

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Iñaki Laguna Serrano INTERVENTOR GENERAL (VB) (16/11/2020 17:55 CET)
Edurne Altxu Elizagaray DIRECTORA IMPULSO DE CIUDAD ECONOMÍA Y HACIENDA (VB) (17/11/2020 08:25 CET)
Jose Antonio Santano Clavero ALCALDE-PRESIDENTE (17/11/2020 11:11 CET)

establezimendu eta zerbitzuen erabateko itxiera" ezartzen du, "hoteletako eta ostatu hartuta dauden bezeroen zerbitzurako beste ostatu batzuetako jantokietan izan ezik. Etxez etxeko otorduak prestatu eta zerbitzatu ahal izango dira, edo bertan jasotzeko aldez aurretik hitzordua eskatuta, 21:00ak arte".

SARS-CoV-2, se determina el cierre total para el servicio a las personas de los establecimientos y servicios de hostelería y restauración, con excepción de los comedores de hoteles y otros alojamientos para servicio de sus clientes alojados. Únicamente se podrá preparar y servir comidas a domicilio o recogida con cita previa hasta las 21:00 horas.

Bonuak trukatzeko fasean dago deialdia, 2020ko abenduaren 4ra bitartean.

Que la convocatoria se encuentra en fase de canjeo de bonos hasta el 04 de diciembre de 2020.

**Argudioak**

**Considerando los siguientes argumentos:**

Akats informatiko baten ondorioz Hiri Bultzadako ordezkariaren urriaren 29ko 50/2020 zenbakiko Ebazpenean sartu ez zen establezimendua kanpainari atxikitako merkataritzako establezimenduen zerrendan sartu beharra dago.

Que procede incluir en la lista de establecimientos comerciales adheridos la solicitud que por un error informático no fue incluida en la Resolución de la Delegada de Impulso Ciudad nº 50/2020.

Gastua baimentzeko A-4831/2020 dokumentuaren arabera, badago horretarako aurrekontua.

Que existe disponibilidad presupuestaria para tal fin según el documento de autorización de gasto A-4831/2020.

Lehendakariaren azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuak "ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuen erabateko itxiera" ezarri zuela kontuan izanik, beharrezkoa irizten zaio ostalaritzako establezimenduetako bonuak trukatzeko epea 2020ko abenduaren 31ra arte luzatzeari.

Que teniendo en cuenta el cierre total para el servicio a las personas de los establecimientos y servicios de hostelería y restauración, determinada por el Decreto 38/2020 de 6 de noviembre del lehendakari sobre el sector de la hostelería, se considera necesario ampliar el plazo del canjeo de bonos en los establecimientos de hostelería hasta el 31 de diciembre del 2020.

Espedientea osatzen duen dokumentazioa **ikusita,** zera

**A la vista** de la documentación obrante en el expediente:

**EBATZI DUT:**

*1. Hiri Bultzadako ordezkariaren urriaren 29ko 50/2020 zenbakiko Ebazpena aldatzea, zeinaren bitartez kanpainari atxikitako merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduen zerrenda onartu zen, eta establezimendu bakoitzak bere bezeroei gehienez ere zenbat bonu eskain ziezazkiokeen finkatu zen eta merkataritzako establezimenduen zerrendan eranskinak aipatzen duen establezimendua sartzea eta establezimendu horri 89 bonu esleitzea*

*2. Merkataritzako eta ostalaritzako bonuen bigarren kanpainarako aurrekontua 410,00 euroan handitzea, A-4831/2020 kontabilitate agiriaren arabera*

*3. Ostalaritzako establezimenduetako bonuak trukatzeko epea 2020ko abenduaren 31ra arte luzatzea*

*4. Aldaketa hau Udalaren webgunean, Dirulaguntzen Espainiako Datu Basean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. eta 20. artikuluekin bat etorriz*

*5. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Aukeran, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da beronen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, hilabetean erabakia jakinarazi eta biharamunetik, edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahalko da erabakia, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabetean berau jakinarazi eta biharamunetik. Gainera, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso aurkeztu ahalko da.*

**HE RESUELTO**

*1º.- Modificar la Resolución de la Delegada de Impulso Ciudad nº 50/2020, de 29 de octubre, por la que se aprobada la lista de establecimientos comerciales y hosteleros adheridos a la segunda campaña de bonos de comercio y hostelería, y se fijó el número máximo de bonos que cada establecimiento puede ofrecer a sus clientes, e incluir en la lista de establecimientos comerciales adheridos a la campaña al establecimiento relacionado en el anexo y asignarle 89 bonos.*

*2º- Incrementar la dotación presupuestaria de la segunda campaña de bonos comercio y hostelería en 410,00 €, de acuerdo con el documento contable A-4831/2020.*

*3-º Ampliar el plazo para canjear los bonos en los establecimientos de hostelería hasta el 31 de diciembre de 2020*

*4º.-Publicar la presente modificación en la página web municipal y en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS) y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de acuerdo con los artículos 18 y 20 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.*

*5º.- La presente Resolución pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo*

***ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.***

Irunen, ebazpen hau sinatzen den egunean.

Irun, a fecha de firma de la resolución.

ALKATEA / EL ALCALDE

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

HIRI BULTZADA, EKONOMIA ETA OGASUN ARLOA

ÁREA DE IMPULSO CIUDAD, ECONOMÍA Y HACIENDA

ERANSKINA / ANEXO

| DNI | Nº BONOS |
|---|---|
| 15248225F | 89 |